

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasteko, baliabideak lortzeko hainbat enprekin aliantzak egingo ditugu. Gure produktua ekoitzi baino lehen hainbat piezaren erosketa egin dugu. Horretarako, pieza elektronikoak eskuratzeko asmoz, Alibaba (<https://www.alibaba.com/>) eta Amazon (<https://www.amazon.com/>) erosketa plataformekin harremanetan jarriko gara. Bestalde, gure produktuaren karkasak Moldable (<https://www.moldblade.com/>) izeneko enpresak sortuko ditu. Hainbat sektoretarako plastikoak injektatzeko moldeak eta piezak sortzen dituen enpresa da. Bioplastikoen, material biodegradagarrien, hidrosolubleen eta birziklatuen fabrikazioan adituak dira, eta proiektu berdeak babesteaz eta kofinantzatzeaz arduratzen dira. Horregatik guztiagatik, haiekin harreman bat finkatzea erabaki dugu, gure karkasak ere ahalik eta berdeenak izan daitezen. Ondoren, beste enpresa batekin adostuko dugu, piezak montatu ditzaten.

Era berean, arriskuak murrizteko asmoz eta gure enpresa enpresa-jarduerak dakarren edozein arriskuren aurrean babesteko, aseguru bat kontratatzea ere badugu buruan. Horrek balio erantsia eskainiko digu onura eskusibo zabalekin batera eta gure diru-sarreraren iturria zaintzeko, hau da, gure enpresa zaintzeko balio digu. Erabiliko duguna Mapfre enpresak (<https://www.mapfre.es/empresas/>) eskeintzen digu.

Garraioari dagokionean, produktua erosita dagoenean, garraio enpresa bat kontratatuko dugu produktua muntatzera bidaltzeko eta ondoren, prest dagoenean guri bueltatzeko. Gainera, *online* eskaerak ditugunean, berriro bidali ahal izango diegu gure produktua bezeroei enpresa horren bidez. Beste bide bat izan daiteke, denda batzuekin adostea gure produktua sal dezaten, baina hori aurrerago baloratuko genuke behin ikusita produktuaren inpaktua nolakoa izan den. Garraio enpresa hori Trans Tineret S.L. izango da denbora osoan. Tokiko enpresa bat aukeratzeaz arduratu gara enpresa txikiei laguntzeko, Lurra ahalik eta gutxien kutsatzeko helburuarekin. Beste zeregin guztiak gure esku geratuko dira.